

# MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE


## GUZTIOK ELKARTEA

Bortziriak Nafarroako  
Mendialdeko bost herrik  
osatzen dute: Arantza, Igantzi,  
Lesaka, Etxalar eta Bera. Paraje  
zoragarrian jende zoragarria bizi  
da, bakoitza bere beharrekin.




BIZIPOZA



elkarlanean













Lehen Iruñera  
joan behar izaten nuen,  
astean bitan. Bidean denbora  
gehiago ematen nuen terapan bano.  
Eta mesede baino gehiago, kalte  
egiten zidan, oso nekatuta  
eta haserre bueltatzen  
bainintzen etxera.



Orain bai pozik etortzen  
naizela igerilekura! Gainera,  
gurasoek plaza inguruan uzten  
naute eta bakarrik etortzea  
gustatzen zait eta bidean  
lagunak egitea, zu bezala.

Bai,  
ze kasualitate  
polita baloia zugana iritsi  
izana! Hurrengoan zurekin  
etorriko naiz igerilekura,  
abixatu!



Guztiok Bortziritetako haur eta familien elkar-  
tea da. Dibertsitate funtzionala duten haurren  
famiak elkartzen dira bertan, hamazazpi in-  
guru, eta lagungarri zaizkien terapiak etxetik  
gertu lortzea da helburu nagusia.



Sortuz geroztik, zenbait zerbitzu Bortziritetan  
eskaintzea lortu dute: fisioterapia, hidrotera-  
pia, psikologia zerbitzua, txakurren laguntza-  
rekin terapia eta anai-arrebentzako laguntza  
zerbitzua, adibidez.



Dibertsitate funtzionala jendartearen erdigu-  
nean jartzea ere bada elkarrearen helburua.  
Normaltasunez eta naturaltasunez zabaltzea  
guztiok ditugula trebetasun eta behar bereziak.  
Jendarte inklusiboago bat eraikitzea, alegia.

Harremanetarako:  
guztiokbortziriak@gmail.com